



## Lana / La obra

Gaur egun, badakigu asko eta asko direla historian zehar teknologiaren esparruari ekarpenak egin dizkioten emakumeak. Baina gutxi lortu dute aitortza, beren asmakizunetatik eta lanetatik bizitzea eta gizartearen esker ona jasotzea. Gehienak, tamalez, ez dira aintzat hartuak izan, eta, horien artean, asko dira gutxietsirik eta zangopilaturik bizi izan direnak. Makina bat hil dira pobrezia gorrian ere, haien sormenez baliatu den gizarteak baztertuta eta ahaztuta, askotan.

Liburu hau urrats txiki bat baino ez da teknologiarekin, asmakizunekin, enpresarekin eta beste hainbat arlorekin zerikusia izan duten emakumeak nabarmentzeko eta egokitu izan zaien egitekoa zalantzan jartzeko.

Zoritarrez, ordea, ezagutza merezi duten emakume asko daude iluntasunean, oraindik, orri hauetan ere tarterik izan ez dutenak. Lan honek balio beza, bada, emakume horiek guztiak apaltasunez omentzeko, eta gizarte justuago bat lortzeko zer egin handia dagoela ez ahazteko. Izan ere, ez dago ulertzerik gizateriak gaurdaino egin duen bidaia luzea, emakume horien guztien bultzada eta ekarpena kontuan hartu gabe.

## Fitxa tekniko / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Emakumeak teknologiaren historian.**

Asmatzaileak eta aitzindariak

Egilea / Autor: **Gontzal Avila**

Ilustratzailea / Ilustradora: **Iosune Avila**

Saila / Colección: Saiopaperak – Pentsamendua eta Gizartea, 29

ISBN / EAN: 9788491094975

Salneurria / Precio: 18 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orri kopurua / Nº páginas: 240

Koadernaketa / Encuadernación: Rustika / Rústica

Formatua / Formato: 16 x 24 cm

Materia: Parekotasuna / Igualdad



## Egilea / El autor

### GONTZAL AVILA RODRIGUEZ (DONOSTIA, 1959).

Magisteritzan diplomatua eta Biologia Zientzietan lizentziatua. Zenbait urtez Lehen Hezkuntzan eta Lanbide Hezkuntzan irakasle aritu da, eta, gaur egun, DBHn dihardu, Teknologiako irakasle gisa.

*Argazkilaritzaren hastapena DBHko Ikasleentzat* (Erein, 2001), eta Lanbide Hezkuntzarako *Osasun-arreta* (Jakintza, 2009) argitaratu ditu.

Bestalde, *Elhuyar* (2000) eta *Vida Apicola* (2001) aldizkarietan erleen munduari buruzko artikuluak idatzi ditu.

Narratiban ere sartu-irtenak egin ditu, eta bidaia-kronikak argitaratu ditu *Egunkarian*, *Berrian* eta *Diario Vascoren Zabalik* gehigarrian.

Denbora librean duenean, familiarekin edo lagunekin mendira joateko eta bidaiatzeko aprobetxatzen du.

### IOSUNE AVILA RODRIGUEZ (DONOSTIA, 1972).

Biologia Zientzietan lizentziatua eta Osasun Dokumentazioan diplomatua. Gaur egun, Zumarragako Eskualdeko Ospitalean dihardu, kodetzaile kliniko gisa.

Gazte-gaztetatik ditu gustuko marrazketa eta arte plastikoak, eta, hamabost urte zituenerako, musika-ekitaldi baterako 14 x 5 metroko horma-irudi bat egin zuen. Autodidakta da, eta askotariko teknikekin esperimentatzen du; baina eskuz egindako marrazkia, argazkigintza eta tresna digitalak baliatzen ditu, batik bat. Bere gai gogokoetak ilustrazioa, erretratua eta emakumeen eta animalien irudiak dira. Hainbat enpresarekin elkarlanean aritu da kartelak egiten, baita arropa marka batzuekin ehunen estanzazioan ere.

*Emakumeak teknologiaren historian* da ilustratu duen lehen liburua.